



GALINDOKO HUA-KO 2. LOHIEN BALORIZAZIO ENERGETIKOAREN LURRUNA SORTZEKO SISTEMA BIRGAITZEKO OBRA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTEAREN ZK.: 3254

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Ireki supersinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3. - Kontratuaren arduraduna:	JAVIER RUIZ DE LA HERA
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono-zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: GALINDOKO HUA-KO 2. LABEKO LURRUNA SORTZEKO SISTEMA BIRGAITZEKO OBRA. 2.- Bete beharreko premiak: Galindo HUAKo 2. labeko lurrana sortzeko sistemak ur osmotizatuaren lurrunketa sortzen du, turbinan elektrizitatea sortzeko behar besteko tenperatura eta presioan birberotutako lurrana sortzeko. 42 Bar eta 420 °C. Kontuan hartuta sistema osoak dituen estres termikoko baldintzak eta zerbitzuan bi hamarkada baino gehiago eman ondoren jasaten duen narriadura-egoera, beharrezkoa da osorik birgaitzea. Horren bidez, labearen segurtasuna eta eskuragarritasuna bermatuko da, eta baita HUAK sortutako lohiak tratatzeko duen gaitasuna ere. 3.-Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Obra hau egikaritzen den instalazioaren ezaugarriek ez dute aukerarik ematen lote independente gisa kontrata daitezkeen lan edo zeregin independenteetan banatzeko. Beraz, lanak behar bezala osatu behar dira instalazio horretan, ekipo kritiko horren geldialdia ahalik eta laburrena izan dadin. Era berean, espediente hau lotetan banatzeak zaildu egingo luke espediente hori kudeatzea, edo, are gehiago, eragotzi egingo luke lanak egitea lote bat edo batzuk adjudikatu ezean.
4.- CPV: 42162000-2 Lurrana sortzen duten galdarak
5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ
6.-Izaera juridikoa



B.- KONTRATUAREN XEDEA

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.-KONTRATUAREN PREZIOA

1.-Lizitazio-aurrekontua
(BEZik gabe)

**HIRU MILIOI ETA BERROGEITA HAMAR MILA
EURO (3.050.000,00 €), BEZ GABE.**

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 3.050.000,00 euro

Loteak: ☐ BAI ☒ EZ

3.-Prezioa zehazteko sistema:

☐ Honenbesteko prezioa ☒ Unitate-prezioak

4.-Urteko kopuruak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira:
623.02.169.33.

- 2026. urtea: 2.000.000,00 €
- 2027. urtea: 1.050.000,00 €

5.-Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ Ez

6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ

7.-Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez

8.-Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar

D.-KONTRATUAREN EPEA

1.-Guztizko iraupena: HAMABI (12) HILABETE.

Kontratua gauzatzeko epeak barne hartzen ditu adjudikaziodunak ingeniari-tza xehea egiteko, materialak biltzeko, ordezkatu beharreko elementuak eraikitze eta muntatzeko behar duen denbora, baita zerbitzuaren beharengatik lan egiterik ez dagoen epe baliogabeak ere.

2.-Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.-Luzapena

☐ BAI ☒ EZ

4.-Berme-epea: URTE (1) BAT

5.-Kontratua betetzeko tokia: GALINDOKO HUA

6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.



E.- BERMEAK

- ☒ Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Ez da aplikatu behar.

G.-GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Ez da aplikatu behar.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai ☐ Ez

Eskatzen diren taldea, azpitaldea eta kategoria:

- Taldea: K
- Azpitaldea: 8
- Kategoria: 4

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen arabera irizpideen dokumentazioa.
3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.



BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzailerik kontratua egikaritzeko proposamen teknikoa aurkeztu beharko dute, adierazitako puntu guztiak barne, jarraian adieraziko den ordenan.

1 Egingo diren lanen irismena.

- Egin beharreko lanen deskribapena, zeinak baldintza tekniko berezien pleguan jasotako deskribapenari balio erantsia ematen baitio.

2 Hornitu beharreko gailuen deskribapena:

- Hornitu beharreko ekipoen deskribapena, haien markak, modeloak, ezaugarri teknikoak, zehaztapenak eta abar zehaztuta.
- Emandako informazioan proposatutako aldaketen justifikazioa.
- Entrega-epea eta hornidura-bermea.

3 Lan-plangintza

- Hornidura- eta fabrikazio-plangintza.
- Muntatzeko, instalatzeko eta probak egiteko lanak planifikatzea, instalazioak geldirik egon behar duen aldia bereziki azpimarratuta.

4 Funtzionamendu-proposamenak.

- Nola jokatu ezohiko beharren bat dagoenean, larrialdietan, etab.
- BBUPrekin eta, zehatzago, Prebentzio Arloarekin, Ustiapen Arloarekin eta Mantentze Lanen Arloekin behar bezala koordinatzeko erabili beharreko metodologia.

5 Kontratua egikaritzeko proposatutako antolamendu-egitura eta lantaldea.

- Antolaketa-egitura eta langileen zerrenda, kontratista-delegatutik hasita beheraka.
- Aurreko ataleko pertsonen CVa, prestakuntza eta lanbide-esperientzia jasota.
- Txandak planifikatzea obraren zeregin kritikoetan.

6 Lanak egikaritzeko esleitutako baliabide materialak.

- Instalazioen deskribapena (aldagelak, tailerrak eta bulegoak).
- NBEak eta babes kolektiboko ekipoak.
- Bitarteko osagarriak: aldamioak, garabiak, plataformak, ekipo elektrogenoak eta abar, propioak edo azpikontratatuak (azpikontratatzea aurreikusita badago, enpresa-hornitzaileekiko konpromisoa erantsi behar da).

7 Azpikontratazioa.

- Horren irismena zehaztu beharko da. (Ez da baloratzeko modukoa).

8 Obrara aplikatutako arriskuen prebentziorako, ingurumenerako eta lan-kalitaterako kontrol-sistemak.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailerak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) II. ERANSKINAREN (Neurketak eta Aurrekontua) arabera eskaintako kontratuaren neurketak eta aurrekontua. Kontratatzatzen den obraren irismena zehazten duen II. ERANSKINEAN (Neurketak eta Aurrekontua) zehaztutako prezio unitarioei ezingo zaie baja bereizirik eman.

Ondorioz, lizitazio-prezio unitario bakoitzari beherapen globalaren ehunekoa aplikatuz lortutakoak izango dira kontratuaren garapenean kontuan hartu beharreko adjudikazio-prezio unitarioak.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaileraren profilean adierazitakoa

2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia

Presidente/Ordezkoa:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Kideak (titularrak/ordezkariek):
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria (titularra/ordezkaria):
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira formula matematikoekin. Balio hauek esleituko dira:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Puntu horien balioak aurretik adierazi den K_1 koefizientearekin biderkatuko dira.

Non:

- B_i : Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, B_i bakoitzari esleitutako P_i puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < B_i \leq 0,6 \times BM$

$$P_i = \frac{B_i}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < B_i \leq 0,8 \times BM$

$$P_i = 44 + \frac{(B_i - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < B_i \leq BM$

$$P_i = 46 + \frac{(B_i - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < B_i \leq (BM + B_{max}) / 2$

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - BM)}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - B_M - B_{\max})}{(B_{\max} - B_M)} \times 2$$

Formula horien bitartez eskuratutako P_i puntuazioaren emaitza guztiak aurreko K_1 koefizientearekin biderkatuko dira.

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

Eskaintza teknikoa jarraian zehazten diren irizpideen arabera baloratuko da, eta lizitaziotik kanpo geratuko da, baldin eta aurreikusitako gehieneko puntuazioaren erdia lortzen ez badu.

- Memoria teknikoa 50 puntu
 - Egingo diren lanen irismena. (gehienez 12 puntu).
 - Hornitu beharreko gailuen deskribapena. (gehienez 8 puntu).
 - Lan-plangintza (gehienez 10 puntu).
 - Funtzionamendu-proposamenak. (gehienez 10 puntu).
 - Kontratua egikaritzeko proposatutako antolamendu-egitura eta lantaldea. (gehienez 3 puntu).
 - Lanak egikaritzeko esleitutako baliabide materialak. (gehienez 2 puntu).
 - Azpikontratazioa. (Ez da baloratzeko modukoa).
 - Kontrol-sistemak. (gehienez 5 puntu).

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerik bakarra dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzailerik daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzailerik daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Lau lizitatzailerik edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batezbestekoa kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berria ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkezten badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailerik hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezkoa den gutxieneko atalasea:

Baztertze arrazoiak izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

ESKAINZA BAZTERTZEKO HUTSEGITE TEKNIKOAK

- Eskaintzako ekipoen eta materialek eskatutako gutxieneko zehaztapen teknikoak bete beharko dituzte, CE marka izan beharko dute eta kalitate, marka edo eredu jakin batekoak izan beharko dute (hala dagokionean). Ekipoak "Parekoa, antzekoa, baliokidea, etab." bezalako adierazpen generikoen bidez proposatzen dituzten eskaintza guztiak ezabatuko dira.
- Eskaintzan sartutako horniduren zehaztapen zehatza jasotzen ez duten eskaintzak ezabatu egingo dira.
- Entrega-epea zehazten ez duten eskaintzak ezabatu egingo dira.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

Honako zigor hauek aplikatuko dira:

1. Muntaketa-epea gainditzen duen egun natural bakoitzeko, egun-kostu bat zigortuko da, honela kalkulatu:

- Uneko eragiketa-egoerak ahalbidetzen badu lohia Galindoko HUAn kudeatu ahal izatea, zigorra 500 eurokoa izango da atzeratutako egun bakoitzeko.
- Lohia BBUPren instalazioetatik kanpoko kudeatzaile batekin kudeatu behar bada, aurreko zigorra handitu egingo da, BBUPk lohia kanpoko kudeatzaile batean kudeatzeagatik ordaindu behar duen kostuan, hain zuzen ere.

2. Kontratistari egotz dakiokeen matxura baten ondorioz instalazioa martxan jarri ondorengo hiru (3) hilabeteetan gelditu behar den egun bakoitzeko, 1. puntuaren antzeko kostua zigortuko da, modu berean kalkulatu.

Zigorrak metagarriak dira. Zigorrak metatzeak kontratua deuseztatzea ekar dezake, SPKLn ezarritako moduan.



N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.
Administrazio baldintza berezien pleguaren gehigarria. (VIII. eranskina)

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasierako ekarpenaren obligazioa ☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez da aplikatu behar

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Enpresa adjudikaziodunak obra honetara atxiki beharko du ordezkari bat. Enpresaren izenean jarduteko edo enpresa ordezkatzeko behar besteko ahala izan beharko du kontratu-harreman guztian, eta pleguko 4.1 GIZA BALIABIDEAK apartatuan deskribatutako langilearekin bat etorri ahal izango da.

Ordezkarik horrek eta enpresa adjudikaziodunaren agindupeko langileek ez dute inolako harreman juridikorik, ez lanekorik, ez bestelakorik izango partzuergoarekin kontratua indarrean dagoenean, ezta kontratua bukatzean ere.